

Asier Diaz de Corcuera Martinezek bere tesia irakurri du

2013/04/26

Apirilaren 23an goizeko 12:00etan, Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko Asier Diaz de Corcuera Martinezek doktoregaiak bere doktore tesia aurkeztu du Pedro Biteri y Arana Ikastetxe Nagusiko Areto nagusian. Tesiaren titulua honako hau da: Design of Robust Controllers for Load Reduction in Wind Turbines eta bere zuzendariak Jonan Barrena eta Joseba Landaluze Moraza.

Epaimahaia horrela osatu zuen:

- Mahaiburua: Fernando Bianchi (IREC, Catalonia Institute for Energy Reseach) Dk. Jn.
- Mahaikidea: Carlo-Enrico Carcangiu (Alstom Wind) Dk. Jn.
- Mahaikidea: Patrick Lanusse (Institut Polytechnique de Bordeaux) Dk. Jn.
- Mahaikidea: Haritza Camblong Ruiz (Ecole Supérieure des Technologies Industrielles Avancées) Dk. Jn.
- Idazkaria: Ander Etxeberria Larrazabal (Mondragon Unibertsitatea) Dk. Jn.

Kontrolagailu sendo multi-objektibo eta multi-aldagaidunak diseinatu eta balioztatzeko prozesu bat ezarri da, H_∞ arauan eta LPV (Linear Parameter Varying) kontrol tekniketari oinarrituta, aerosorgailu batean kargak murrizteko helburuarekin. Kontrolagailu horiek diseinatzeko abiapuntua offshore turbina ez lineal baten modelo bat da, GH Bladed softwarearen bidez garatuta eta 5 MW-eko Upwind aerosorgailuan oinarrituta.



Asier Diaz de Corcuera Martinezen Tesia